lezamabizirik

HERRI ALDIZKARIA +++ MAIATZAK 2017

2015EKO HAPO BERTAN BEHERA GERATZEKO BIDEAN, 2007KO ARAU SUBSIDIARIOAK BEZALA.

EL PGOU DEL 2015 EN CAMINO DE LA NULIDAD, COMO LAS NNSS DEL 2007.

www.lezamabizirik.com // lezamabizirik@lezamabizirik.com

2015EKO HAPO 2007KO ARAUAK BAINO OKERRAGOAK.

HAPOren kontra 2015ean 50bat herritarrek jarritako errekurtsoa bere azken tramitetara ailegatu da. Laster sententziaren zain geratuko da, eta orain arte egindako tramite judizialetan ikusitakoaren arabera uste dugu HAPO hori bertan behera geratuko dela bere osotasunean edo, behintzat, zati garrantzitsuetan.

Aurreko Arau Subsidiarioetan parte hartze prozesuan akats larriak egin baziren, oraingo HAPO honetan ere errepikatu egin dira. Bizi ditugun krisi ekonomiko eta inmobiliario larrien erdian, orain ere 600.000 m2 industrial birkalifikatzeko agindua ematen du, balio handiko nekazal lurren birkalifikazioa hain zuzen ere, kontuan hartu barik oraindik ere aurreko Kurtzeko poligonoaren 200.000 m2 bete gabe daudela.

Etxe bizitzen arloari dagokionez 2007an Lezamako etxebizitzen kopurua %50 handitzea proposatzen bazen, 2015eko HAPOn proposatzen den handitzea %70eraino ailega daiteke, inongo beharrik edo justifikaziorik gabe, ez bada espekulazio hutsa.

Gauzak horrela saiatuko gara laburtzen irregulartasunik nabarmenenak.

EL PGOU DEL 2015 COMO LAS NNSS DEL 2007, O PEOR

El recurso interpuesto por una cincuentena de vecinxs de Lezama y por Lezama Bizirik al PGOU aprobado en el 2015 cubre sus últimos trámites.

Pronto quedará visto para sentencia y tenemos la impresión, que hemos ido reafirmando en cada trámite judicial, que este Plan quedará anulado en su totalidad o en partes importantes, tal y como sucedió con las Normas Subsidiarias anteriores.

Las razones que llevaron entonces a Lezama Bizirik a recurrir y a los Tribunales a anular aquellas Normas no sólo se han repetido con el PGOU del 2015, sino que, se han multiplicado las irregularidades legales, como se va demostrando en el proceso judicial.

Si las Normas anteriores se anularon por graves defectos en el proceso de participación, con el PGOU estos defectos han vuelto a repetirse; si las Normas planteaban en el año 2007 la calificación industrial de casi 600.000 m2 de tierras de alto valor agrícola, este PGOU impone, 10 años después y aún sufriendo los efectos de la gran crisis económica e inmobiliaria, exactamente lo mismo, aunque ni siquiera se hayan conseguido ocupar los 200.000 m2 del antiguo polígono de Kurutze.

Lo mismo pero agravado ocurre con la propuesta para construir nuevas viviendas. Si en el 2007 se proponía incrementar casi en 50% el número de viviendas en Lezama, el PGOU en el 2015 propone que este incremento pueda llegar a ser de más del 70%. Ninguna justificación, ninguna lógica, sólo la especulativa.

Y así podríamos seguir hasta aburrirnos. Han pasado diez años y lejos de replantear y consensuar contenidos, la propuesta urbanística para Lezama no sólo es peor sino que además se ha tramitado con todo tipo de irregularidades legales. Es más, algunas de estas irregularidades pueden llegar a tener consecuencias de tipo penal, como explicaremos después.

HAPO BALIOGABETZEKO 2007AN BAINO ARRAZOI GEHIAGO

Prozesu judizialaren lehen bi faseak amaitzear daude -frogak eta lekukotasunak-. Jarritako errekurtsoan salatutako irregulartasunak banan-banan frogatzen ari dira. Garrantzitsuenak laburtuko ditugu.

1 Udalak onartu du derrigorrezkoa den Parte-hartze Plana, legeak agintzen duen baino urte bete beranduago jarri zuela martxan.

2 Eusko Jaurlaritzak baieztatu du HAPOn industrial moduan birkalifikatutako lur sailak, aurretik Balio Handiko Nekazal lurrak bezala kalifikatuta zeudela. Birkalifikatzeko, Udalak, derrigorrez, tramitazio berezia egin behar zuen, eta hori ez zuen egin.

3 Udalak onartu du Kurutzeko aurreko poligonoaren 200.000m2 bete barik daudela, HAPOren dokumentazioan kontrakoa idatzi arren.

4 Foru Aldundiaren katastroak aitortu du ez zuela jaso bere garaian Arau subsidiarioak bertan behera geratzen zireneko sententzia, Udalak bidali behar izan ziona, eta horren ondorioz, besteak beste, diru-bilketa errenta aitorpenean okerra izan dela.

5 Gauza bera gertatu da Udalplan erakundeak -Eusko Jaurlaritzaren mendekoa- kudeatu duen informazioarekin, oinarrizko iturria edozein tramite urbanistiko ofizialetan. 2014a arte informazio faltsua zabaldu du anulatutako Arau Subsidiarioetan oinarrituta, Udalak anulazioaren informazio ez ziolako helarazi Udalplani.

6 Udalak ziurtatu behar izan du aurreko alkateak, Etxeandia andereak, bere botoa eman zuela HAPO onartzeko egin zen tramitazio guztian, jakin arren bete-betean erabat interesatuta Txupetxako urbanizazioan, planaren puntu gatazkatsuenetako bat. Onarpen batzuk boto bakarreko aldearekin atera ziren aurrera.

7 Prozesuaren tramitean nahitaezkoa da Udalak Energia, Turismo eta Agenda Digital Ministerio espainiarrari dagozkion txostenak eskatzea, eta Ministerioak jakin arazi du Udalak ez diola inongo txostenik eskatu.

8 Baieztatu da ez datozela bat Diputazioak 2015eko maiatzean onartutako testua eta 2015eko azaroan Bizkaiko Buletinan argitaratutakoa. Testuan egindako aldaketa horiek – eta ez Diputazioak HAPOri buruz agindutako zuzenketak – duten helburu argia aprobetxamendu urbanistikoa baino ez da, hori bai, inongo tramiterik gainditu gabe eta, beraz, modu ilegalean. Gainera dokumentu ofizialak manipulatzeak edo faltsutzeak ondorio penalak izan ditzake.

9 Udalak baieztatu egin behar izan du aurreko alkateak 2013an hitzarmen bat sinatu zuela gasolindegi bat egiteko baimena ematen, jakinda lur-zoruari buruz erabiltzen ari ziren datuak ez zirela zuzenak, eta Udal idazkariaren txostenaren kontra, zeinak ohartarazten baitzuen hitzarmena legalki ez zela zuzena.

10 Udalak onartu behar izan du 2007an egin zuen azterketa hidraulikoa A.I.2 (Txupetxa) eta A.I.5 unitateak garatzeko asmoz inoiz ez dela publikoaren aurrean aurkeztu eta HAPO tramitatzeko erabili den dokumentazioan ere ez dela gehitu. Gauzak horrela Ibai Bazterren Arloko Planean, zein P.I.P.I.-n, zein Eusko Jaurlaritzaren Arriskuen Prebentziorako Zuzendaritzak egindako txostenean lur sail horiek ur azpian gelditzeko arriskupean daude, eta, beraz, bertan ezin da eraiki.

MAS RAZONES QUE EN EL 2007 PARA DECLARAR NULO ESTE PGOU

A punto de finalizar la fase judicial de pruebas y testificales , van demostrándose una tras otra las irregularidades denunciadas en el recurso:

1 El Ayuntamiento ha reconocido que el trámite obligado del Plan de Participación se puso en marcha con un año de retraso sobre lo que marca la Ley.

2 El Gobierno Vasco ha confirmado que las tierras de Aretxalde recalificadas como industriales en el PGOU eran anteriormente calificadas de alto valor agrológico. Su recalificación exige trámites especiales que no se han realizado. Asimismo el Ayuntamiento ha reconocido que el anterior polígono de Kurutze de 200.000m2 no está aún ocupado, en contra de lo que se recoge en la documentación del Plan.

3 El Catastro, organismo de la Diputación, ha declarado que no recibió a su tiempo el informe de la anulación legal de las NNSS y, por ello, ha informado y recaudado erróneamente durante los últimos años en base a aquella normativa anulada.

4 Lo mismo ha ocurrido con Udalplan, dependiente del Gobierno Vasco, organismo básico de información en cualquier trámite urbanístico oficial. Hasta el 2014 ha proporcionado información falsa basada en las NNSS ya que el Ayuntamiento no informó de su anulación.

5 El Ayuntamiento ha tenido que certificar que la anterior alcaldesa, Sra. Etxeandía, votó en todos los trámites de aprobación del PGOU, a pesar de tener intereses directos en uno de los puntos más conflictivos del Plan, la urbanización de la unidad Txupetxa. Alguna de estas aprobaciones se produjeron por un sólo voto de diferencia.

6 El Ministerio de energia, turismo y agenda digital español ha informado que no se solicitó por parte del ayuntamiento informe alguno, aunque este es preceptivo en el trámite.

7 Se han detectado manipulaciones en el texto del PGOU publicado en el BOB en noviembre del 2015 respecto del texto aprobado por Diputación en mayo de ese año. Estas alteraciones en el contenido que no tienen nada que ver con las correcciones ordenadas por la Diputación y que buscan posibilitar aprovechamientos urbanísticos que no han pasado ningún trámite del PGOU pueden acarrear incluso consecuencias penales, ya que suponen una alteración de un documento legal.

8 El Ayuntamiento ha tenido que confirmar que la anterior alcaldía firmó en 2013 un Convenio Urbanístico para posibilitar la construcción de una

gasolinera que contenía datos incorrectos sobre la calificación de los terrenos y lo hizo con el informe en contra de la Secretaria municipal que advertía de incorrección legal de dicho convenio.

9 El Ayuntamiento ha debido reconocer que el estudio hidraulico que hizo en el 2007 para posibilitar la urbanización de las unidades A.I. 2 (Txupetxa) y la A.I.5 nunca ha sido expuesto al público y que no forma parte de la documentación de este PGOU. Tanto el PTS de Márgenes, como el P.I.P.I., así como el informe emitido por la Dirección de prevencion de Riesgos del Gobierno Vasco siguen considerando inundables esas parcelas y, por tanto, inedificables.

Y podríamos seguir: La inexistencia del Informe preceptivo sobre Suelos contaminados, las "peculiares" propuestas para posibilitar más viviendas con la división de caserios o la transformación de lonjas, la inclusión en el expediente de documentación que no ha sido expuesta al público o no ha pasado por la Comision de Ordenación del Territorio del Pais Vasco (COTVP). La conclusión es que hay razones muy sólidas para que también este PGOU acabe siendo declarado nulo por los tribunales.

LEZAMA BIZIRIKEN PROPOSAMENA IRTENBIDE BILA: ORAINDIK ERE ERANTZUNAREN ZAIN.

Otsailaren 15ean bilera bat egin zen Udaletxean, alkateak deituta, gaiari buruz hitz egiteko. Alkatea, EAJko 2 zinegotzi, Bilduko hainbat zinegotzi eta Lezama Bizirik zuzendaritza batzordeko hainbat kide elkartu ginen.

Alkateak denbora luzez azaldu zuen Udalaren egoera ekonomiko "delikatua" eta HAPO bertan behera lagatzeak eragingo lituzkeen kalteak, Udalaren egoera okerrera egingo baitzuen.

Lezama Bizirik-ek, bere aldetik, argi utzi zuen Udalaren egoera ekonomikoa jardunean dagoen Udal taldearen ardura dela, eta, adibidez, Kurutzeko poligono industrialaren kudeaketan udal ondare publikoaren ehunka mila euro "galdu" dituela.

Puntu horretan argitu genuen legediak aukera ematen duela prozesu judizialak 2 urteko epean gelditzeko, bi aldeen artean negoziazio prozesu bat martxan jartzen bada. Horrek esan nahi du Udalak proposamen serio bat egingo baligu

HAPOren inpaktu larrienak gutxitzeko, gure aldetik proposamena Herri Ekimena bultzatzen dugun pertsonen artean aztertu eta eztabaidatuko genukeela.

Badakigu halako negoziazio bat ez dela batere erraza baina Udal gobernuaren proposamen serio bat, mamitsua, gogo onez aztertuko genuke. Bileraren amaieran alkatearen erantzuna izan zen

"2 edo 3 aste barru" elkartuko ginela edo proposamen bat helaraziko zigula.

3 hilabete itxaroten egon gara, isilik, eta ez dugu inongo berririk jaso. Tramite judizialek aurrera jarraitzen dute eta, seguru asko, aste gutxitan, helegitea sententziaren zain geratuko da.

Orain dela 3 hilabete bezala, berriro esaten dugu, Lezamako etorkizuna kontuan hartuta, nahiago dugula akordio eskas bat, sententzia "on" bat baino. Baina aukeratu behar badugu HAPO hori eta bere kontrako sententziaren artean, ez dugu zalantzarik, nahiago dugu segi gauden moduan, plan urbanistiko jakinik gabe hainbat urtetan, Lezamako etorkizuna modu larrian hipotekatu baino lehen arlo urbanistikoan, arlo sozioekonomikoan eta ingurumen arloan.

Gauzak argi gera daitezen berriro diogu: prest gaude aztertzeko negoziazio proposamen serio bat, eta horren baitan, HAPOren kontrako tramite judiziala gelditzeko. Oraindik ere posible da, baina denbora amaitzear dagoela uste dugu.

PROPUESTA DE LEZAMA BIZIRIK PARA BUSCAR UNA SALIDA: SIN CONTESTACIÓN DEL AYUNTAMIENTO.

En estas circunstancias el 15 de febrero pasado se celebró una reunión en el Ayuntamiento convocada por el alcalde. A dicha reunión acudimos el Alcalde y dos miembros de su grupo municipal, concejales del grupo municipal de Bildu y varios componentes de la Junta Directiva de Lezama Bizirik. La mayor parte de la reunión la consumió la intervención del alcalde en la que expuso la delicada situación económica del Ayuntamiento que, según sus palabras, se vería seriamente empeorada si el recurso prospera y se declara nulo el PGOU.

Lezama Bizirik, por nuestra parte, expusimos que la situación económica del Ayuntamiento es responsabilidad de la política que sigue su equipo de gobierno, especialmente en asuntos urbanísticos como la urbanización del polígono industrial de Kurutze donde el Ayuntamiento ha enterrado cientos de miles de euros del patrimonio público municipal.

En todo caso, reconocimos entender la preocupación por la situación económica y nos comprometimos a esforzarnos por buscar una salida. En ese sentido hicimos una propuesta al respecto: Ya que la ley procesal posibilita "congelar" hasta por dos años un proceso judicial si las dos partes lo solicitan para abrir un periodo de negociación, estamos dispuestos a explorar esa vía. Es decir, si el Ayuntamiento nos hace un planteamiento serio para intentar consensuar alguno de los contenidos más discutibles del PGOU, nosotros solicitaríamos a la Acción Popular que impulsa el recurso que autorizase la paralización de éste.

Dejamos claro que somos conscientes de que los márgenes de negociación no son amplios pero que nos comprometíamos a estudiar seriamente cualquier propuesta en este sentido que nos hiciese el Ayuntamiento. La respuesta por parte del Alcalde fué que " en dos o tres semanas" convocaría una nueva reunión o nos haría llegar alguna propuesta.

Ya hemos esperado tres meses, en los que hemos guardado silencio, pero visto que no hemos tenido ninguna noticia, los trámites judiciales siguen adelante y posiblemente en unas semanas el recurso quedará visto para sentencia.

Reiteramos, como hace tres meses, que preferimos una mal acuerdo a una buena sentencia, pero en la disyuntiva de tener que elegir entre este PGOU tal y como está, y su anulación, aunque nos avoque a unos años más sin plan urbanístico, no nos cabe la menor duda: Lezama prefiere quedarse como está a hipotecar gravísimamente su futuro urbanístico, medioambiental y socioeconómico.

Por si quedan dudas, volvemos a insistir: estudiaremos con toda atención cualquier propuesta seria de negociación, que podría incluir la paralización del trámite judicial contra el PGOU. Y todavía hay tiempo, aunque está a punto de agotarse.

www.lezamabizirik.com // lezamabizirik@lezamabizirik.com